



ABALTZISKETA

## **HONDAKINEN GAIA AZTERTZEKO BILERA DEIALDIA**

Abaltzisketan, hondakinen bilketa sailkatze lanetan hasi zen eta aldi berean, bilketa puntuak ere kendu ziren, guztia Tolosaldeko Mankomunitatean hartutako erabakiak jarraituaz.

Tolosaldeko Mankomunitatearen erabakia jarraituaz ere, hondakin organikoa bertan kudeatzeko geratu zen, izanez ere, organikoaren bilketa kendu egingo zutelako. Honen ondorioz, konpostagailuak banatu ziren, norberak bere etxean organikoa kudeatzeko.

Hondakinak biltzeko puntuetan, paperaren edukiontzia, plastiko eta ontzien edukiontzia, arroparen edukiontzia, arriskutsuen ontzia (hau Udaletxeko behe solairuan dago) eta errefuxarentzako bi edukiontzi herrian eta bat Larraitzen jarri ziren.

Hasieran, sailkapena egiten saiatzen zela ikusi zen baina denborarekin berriro ere utzikeri handiak ikusten ari gara. Traste zaharrak biltzeko eguna eta ordua ez dira errespetatzen. Gainera, traste zaharren bilketari itxaron ezina bada, norberak Tolosan eta Ordizian jarrita dauden garbi gunetara eramateko aukera ezin hobea dago, eta eramaten bada asko eskertzen dute.

**Herriko edukiontzietan egoera larria dago eta gero eta arrisku handiagoa ere ikusten da. Horregatik herri bilerara deitzen da:**

**EGUNA: MAIATZAK 23, ASTELEHENA**

**ORDUA: 20:30etan**

**LEKUA: GOIBEGIKO AUDITORIOAN**

Bertan izango zarelaokan,

Abaltzisketan, 2016ko maiatzaren 16an

Alkateak